

Idazkariak, irakasle karnetak sortzeko premia agerrerazi du. Eta gauza hau aurrera eramateko, hasieran, esamiña premiarik gabe, zenbait urtean euskeraz irakaseta ari direnei, *curriculum vitae* bat ekarriaz karnetak eman eta ondorengoei ere, sistima honetatik aparte, esamiñaren bidez. Eta esamiñak egiteko oinharriak ere beharko direla. Urrengo batzarreko zenbait irakasle aspaldiko urteetatik egiten ari diren lanen berri ekartzea erabaki da.

Irigaray jaunak dio, urrengo batzarreko gaetan "Euskera" aldizkariari buruzko azterketa bat komeni dela, geroari begira.

Aurtengo literatura saria, Bizkaiko Aurrezki Kutxak 25.000 pezetako sari berezizat jarri duena eta urtarrileko batzarrean guk gaitzat literatura saiakera autatu genuenari, oinharriak jarri beharra agerrerazten da, eta "Txomin Agirre" izeneko nobela saria eta "Toribio Alzaga"-n izeneko antzerki sariaren arabera martxoko batzarreko oinharriok ekartzea erabaki da.

Ohi dan otoitzarekin bukatu da biltzarra.

Euskaltzainburua
LUIS VILLASANTE

Idazkaria
JUAN SAN MARTIN

1971-III-26

Donostian, Gipuzkoako Diputazioan, 1971-eko martxoaren 26-an, goizeko hamar t'erdietan.

Bildu direnak: Villasante buru, Haristchelhar buru-ordezko, Arrue, Diharce, Aita Intza-koa, Irigaray, Irigoyen, Lafitte, Lekuona, Labayen eta Zabala euskaltzainak; Beobide, Berrojalbiz, Enbeita, Fernández Setien, Garmendia (Jon), Garmendia (Salbador), Intxausti, Lizundia, Sarasola eta Zatarain euskaltzain laguntzaileak, San Martin idazkari dala.

Dassance, Epherre, Larzabal eta Satrustegik ezin etorria adierazi dute.

Ohi dan otoitzarekin hasi da biltzarra. Otsajleko agiria onhartu da.

a) *Har-emanean*: Mitxelena eta Peillen jaunen idazkiak hartu dire, otsaileko biltzarrean aztertu zen "gorputz-soin" gaiari buruzko agiri ta xehetasunak emanez, behar bezala berezirik erabiliko ba dira: "gorputz" itza, "cuerpo" edo "corps" bezala erabili behar dala eta "soin" hitza, "hombro" edo "épaule" bezala.

Gipuzkoako Diputaziotik hartu den gutun bat irakurri da, Euskaltzaindiaren Gipuzkoako ordezkari-tza bulego berritzeaz hil honen hogeiko bileran ontzat eman dutela Bibliotekaren ondoan gela berritu bat jar-tzea, lehen dugunaren orde. Eskerrak ematea erabaki da.

Arabako ordezkari-tzaren gutuna, Araban aurten egingo dugun batzarra Aramaion egin dezagula proposatzen dute, Barrutia-ren sorlekua dalako, probintzia hartan euskerarik geien egiten den lurraldea delako eta euskal giroa berbizteko onuragarri derizkielako. Ontzat hartu da, baina eguna erabakitzeke gelditzen da.

Biltzar programa beharra aipatu da. Haristchelhar jaunak, muga-zandiko bilera, uztaillaren 4-an izanen dela, Baionan eginen duten Euskal-asteakin batera, eta tokizat Beskoitze autatu dute Leizarraga-ren ohorez, aurten betetzen direlako lauhun urte *Jesus Christ gure jauna-ren Testamentu berria* argitaratu zuela.

Bizkaikoa, datorren hilaren hogeian Bilbon egitea erabaki da, II Semana de Antropología Vasca-n euskerari buruzko mahai-biribila izango den egun berean.

Nafarroakoa erabakitzeko gelditzen da.

Lexonako udaletxearen gutuna, herri hartan euskaldun eta erdalduen estadistika bat egiteko laguntza teknikoa eskatuaz, estudio zehatz baten ondorean oinarrizko irakaskintza behar bezala antolatu ahal izateko. Gaur S. C. I.-ekin gai honi buruz lana egitea erabakia dugunez, elkargo honetakoekin mintzatu ondorean erantzuna ematea erabaki da.

1971 Jaialdi Euskerazkoak Durango-n antolatzaileak eskaintzen digute Euskaltzaindiak beren jai honetan parte hartzea eta "Proyecto de creación de una Biblioteca de Clásicos Euskéricos" sariketa bere babespean hartzea. Onzat hartu da.

Hartu diren liburua: Jakin sortak *Rikardo Arregi* liburua (1971), R. Arregi, Alfabetatze Batzordea, J. Arregi eta J. M. Torrealday-ren lanez osatzen dan bilduma; Irakur sailek Oihenarteren *Atsotitzak eta neurtizak* (1971) liburua. Eskerrak ematea erabaki da.

Gipuzkoako gobernadorearen agurra: Txosten gaietan hasi ta laster, Gipuzkoako gobernadore jauna sartu da, Diputazioko presidentea lagun duela, eta mahai buruan jarririk batzarkide guziak agurtu ditu. Euskeraren alde bere gogoa agerreraziz mintzatu da eta Euskaltzaindia hizkuntza honegatik egiten ari dena txalotu du. Euskaltzainburu jaunak, bere agertze eta agurragatik eskerrak eman dizkio, eta Gobernadore jaunak, bere laguntza eskaini dio, eta ondorean batzarkide guziak banan bana agurtu ditu. (Biharamuneko "La Voz de España"-n, 27-III-71, jasorik argitaratu dira hemen egindako hitzak oro.)

b) "*EUSKERA*" aldizkariaren eraberritzearena: Euskaltzainburuak irakurri du txosten bat orain arte aldizkarian egin dan laneri buruz, azken urteotan A. Irigoyenek egin duen lana eskertuaz, eta aurrera begira behar dituen hobekuntzak adieraziz. Gure elkargoaren gaurkotasunari tokatzen zaion neurrira jartzeko beharko dituen zenbait puntu ere ikutu ditu, hiru hilabeterokoa izatea, t. a., eta azkenik, aldizkariaren lana aurrera eramateko batzorde hau proposatzen du: Euskaltzainburua, Buru-ordezkoa, Idazkari nagusia, dituzten karguegatik, A. Irigoyen lan honetan duen esperientziagatik, A. L. Akesolo bibliografian eta kondairan duen jakitateagatik, A. J. Intxausti gazte-dinamika ekarri dezan, P. Lafitte euskal eremu guzietan maixu denez, J. M. Satrustegi *Fontes Linguae Vasconum* eta *EUSKERA*-ren artean bitarteko bezala izan dedin, eta L. Mitxelena linguistika gaietan beronen aholkua izan dezagan. Eta, eragile lana, lan ejekutiboa, Idazkari-ordearen esku. Ontzat hartu da.

d) *Santamaria jaunaren txostena, euskal esaeren hiztegi*az, Santamaria jaunak ezin etorria izan duenez gero, urrengo biltzarrerako utzi da.

e) *Lekuona jaunaren txostena "asko" hitzaz* (bigarren zatia): "asko" hitzaren sintaxisaz joan zen bilerakoari jarraitu dio, zenbait exenplu gaineratuaz pluralean erabili ohi denez bai singularrez eta bai pluralez, lege hertsirik gabe.

f) *Labayen jaunaren txostena zuta, zear, ordezkartza hitzei buruzkoa:* "Bertikalki" eta "horizontalki"-ren ordezkartza eta zear proposatzen ditu, eta ordezkartza *delegación*-en ordezkartza, eta ez *bulego*. Elkarriketa-
ren ondorean, *zuta*, "vertical" en kideko dela esan da, baina geometrian

“bertikalki” erabili ezinik ez dagoela, bestea gainerakoetarako utziaz. *Zear* edo *zehir*, ez dala “horizontal”, baizik “transversal”-en kideko. Gure artean, *ordezkaritza* beti erabili dela “delegación”-en ideaz, eta *bulego*, “oficina” esateko bereizten dela, aspaldiko urteetan Euskaltzaindiko agerietan agertzen denez.

g) *Batzordeak eta bakoitzak dakartenarenean*: Gredos argitaldariai argitara berri duen Joan Corominas-en *Diccionario Crítico-Etimológico de la Lengua Castellana*, gure lanetarako hain premiazkoa denez, erostea erabaki da.

Irigoyen eta Lizundiak, biblioteca eraberritzeko diru eske-kanpaña egitea eskatzen dute. Ontzat hartu da.

Symposium ttipia, edo lehen bilerak, geroago izango den *Symposium*-aren gertaeraz egingo dana, apirilaren 4 eta 5-ean izango da Iruñean, Nafarroako Museoa. Bertarako deiak dituztenak bereziki parte hartuko dute.

Berriz gogorazten da, euskera irakasten ari direnei karnetak gertatzeko, irakasleen *curriculum vitae* eta hoiak erabiltzen duten erakusketa metodoen berriak eta noiztik ari direnen xehetasunak ekartzea, bakoitzak bere aldetik hortan ari direnei dei egiaz.

Aditzera eman da, azken bozetan Baigorriko auzaphez irten dala Haritschelhar jauna. Zorionak eman zaizkio.

Ohi dan otoitzarekin bukatu da biltzarra.

Euskaltzainburua

LUIS VILLASANTE

Idazkaria

JUAN SAN MARTIN

1971-IV-20

Bilbon, Euskaltzaindiaren Etxean, 1971-ko apirilaren 20-an, goizeko hamar t'erdietan.

Bildu dira: Luis Villasante buru, Jean Haritschelhar buru-ordezko, Aita Damaso Intza-koa, Irigoyen, Lafitte, Mitxelena jaun euskaltzainak; G. Manterola jauna, euskaltzain ohorezkoa; Altuna, Arenaza, Aresti, Arkotxa, Azpeitia, Baztarrrika, Berriatua, Berrojalbiz, Enbeita, Etxaniz, J. A. Etxebarria, Fernández Setien, Garmendia (Jon), Gereño, Intxausti, Kerexeta, Kintana, Lizundia, Oleaga, Onaindia eta Santamaria jaun laguntzaileak, San Martin idazkari dala.

Arrue, Dassance, Diharce, Erkiaga, Eppherre eta Larzabal jaunak ezin etorria adierazi dute.

Ohi dan otoitzarekin hasi da biltzarra.

Martxoko bilerako agiria ontzat hartzen da.

a) *Har-emanak*: EUSKERA aldizkariari diruzko laguntza emateko Aurrezki Kutxen federazioan egin den gestioaren berri ematen da.

Patrick J. Farrell euskaltzain laguntzailearen gutuna irakurri da. López-Mendizabal-en gramatika laburra inglesera itzuli duanez, behar diren zuzenketak egiteko laguntza eskatzen du. Mitxelena jaunak bere gain hartzen du zuzenketa lan hau.

Espasa-Calpe, S. A.-tik Azkue-ren *Euskalerraren Yakintza*-ren egile eskubideen ordainketa, igazko azken sei hilabetekoa, 2.368 pezeta. Baita